

**EUSKARA HUTSEZKO UDALAKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO
DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK**

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da euskara hutsezko udalekuetara joaten diren haur eta gazteei dirulaguntza ematea.

2. Dirulaguntzaren gaiak. Deialdi honek 2022. urtean zehar burutuko diren eta honako ezaugarri hauek dituzten udalekuak hartuko ditu kontuan:

- a) Haur edo gazteei zuzendutako euskara hutsezko udalekuak izatea.
- b) Udalekuak 5 egun (4 gau) eta 15 egun (14 gau) bitartean irautea eta udako oporren garaian eskaintzea (ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte).

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira honako hauek:

- a) Sakanako Mankomunitateak —zuzenean zein zeharka— kudeatutako udalekuak, baita Sakanako Mankomunitatearen bestelako dirulaguntzaren bat jasotzen dutenak ere.
- b) Txango eta bidaiak.
- c) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten kirol campusak.
- d) Barnetegi erregimena eskatzen ez duten hiri-udalekuak edo udaleku irekiak.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Helburu honetarako, guztira, 9.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2022ko ekitaldiari dagozkion aurrekontuetako 4 3350 4820005 (Udalekuetarako dirulaguntzak) partidari jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua aldaketaren zenbatekoaren arabera handitu edo murriztu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua baino gehiago jotzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituzten artean betiere.

Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahal izanen du dirulaguntza.

Dirulaguntza gehienez 125,00 eurokoa izanen da.

4. Deialdiaren publizitatea. Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da laburpena.

5. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak egiteko epea 2022ko irailaren 30era bitartekoa izango da.

Neba-arreba bat baino gehiagok hartu baldin badu parte udalekuetan, amak, aitak edo tutoreak eskaera bat egin beharko du senide bakoitzeko.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako dirulaguntza eskuratzeko eskabidea udalekura joan denaren aitak, amak edo tutoreak egin beharko du, eranskinean azaltzen den eredia baliatuz.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko bulegoetako erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoaren bidez:

- a) Eskabide ofiziala beteta.
- b) Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.
- c) Udalekura joan denaren aitaren, amaren edo tutorearen NANren fotokopia.
- d) Udalekura joan denaren errolda-agiria.
- e) Udalekuari buruzko ezaugarriak (iraupena, hizkuntza, egitaraua) zehazten dituen dokumentua —entitate antolatzaileak izenpetua— edo publizitaterako erabili den euskarria.
- f) Udalekua antolatu duen entitateak izenpeturiko asistentzia-egiaztagiria.
- g) Eskatzaileak udalekuaren gastu osoa ordaindu izanaren ordainagiria(k).

Hona zer helbidetan aurkeztu behar den dokumentazioa:

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32

31830 Lakuntza

Edo:

<https://sedeelectronica.sakana-mank.com/eu/tramites/registro-electronico/>

Ez dira aintzat hartuko posta elektroniko bidez jasotako eskabideak.

Deialdiaren inguruko zalantza edo esatekoren bat izanez gero, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara jo, edo euskara1@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 948 464840 telefonora deitu.

7. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak (eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintzak):

- a) Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslea izatea.
- b) Sakanan erroldatua egotea.
- c) Sakanako Mankomunitatearekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea (mankomunitateak ofizios egiaztatuko du inguruabar hori eta dagokion eginbidearen bitartez jasoko du).

8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

9. Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Sakanako Mankomunitateko lehendakariak emango du Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz, hamabost eguneko epean. Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen-ebazpenean dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko zer errekurso-bide dauden, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurso-bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2022ko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsizat jotzen ahalko da.

10. Dirulaguntzaren ordainketa. Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira. Banku-transferentzia eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrantearen zenbakian.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina gainerako onuradunen artean proportzionalki banatzen ahalko da.

11. Bateragarritasuna. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk objektu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada.

12. Dirulaguntzen itzulketa. Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Helburu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

13. Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

14. Datuen babesa.

- a) Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

- b) Tratamenduaren helburua: Dirulaguntzak kudeatzea.
- c) Datuen komunikazioak: Datuak beste erakunde batzuei jakinaraz dakizkieke, deialdiaren 11. klausula betetzeko, bateragarritasunari buruzkoa.
- d) Eskubideak: Besteak beste datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara edo info@sakana-mank.eus helbidera joz.
- e) Informazio gehiago: Pribatutasun politika www.sakana-mank.eus webgunean.

15. Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako, Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

16. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetan hasiko da epe hori.

**EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO
DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA**

Eskatzailearen datuak (ama/aita/tutorea):

✓ Izen-abizenak:

✓ NAN:

✓ Helbidea:

✓ Posta-kodea:

✓ Herria:

✓ Telefonoa:

✓ E-posta:

✓ Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Udalekuari buruzko datuak:

✓ Udalekura joan den haur edo gaztearen izen-abizenak:

✓ Entitate antolatzailea:

✓ Datak:

✓ Matrikularen zenbatekoa: €

Data eta sinadura

DATUEN BABESA

Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

Tratamenduaren helburua: Dirulaguntzak kudeatzea.

Datuen komunikazioak: Datuak beste erakunde batzuei jakinaraz dakizkieke, deialdiaren 11. klausula, bateragarritasunari buruzkoa, betetzeko.

Eskubideak: Besteak beste datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara edo info@sakana-mank.eus helbidera joz.

Informazio gehiago: Pribatutasun-politika www.sakana-mank.eus webgunean.

**EUSKARA HUTSEZKO UDALEKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO
DIRULAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA**

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.
- Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza-
eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa
hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)